

Claude Achille Debussy

Datu orokorrak

Musikagile Frantsesa (Saint-Germain-En-Laye, 1862 – Paris, 1918). Manuel-Achile Debussy eta Victorine Manouryren semea zen. Bere aita portzelana denda baten jabea zen eta beranduago Paul Duponten inprentan egin zuen lan. Manuel guardia nazionaleko kapitaina izatera iritsi zen Komunaren zerbitzuan. Horren ondorioz, lau urte egon zen gartzelan, lehenengo bete zuelarik. Bere gurasoei dagokienez, langile sinpletzat hartu izan dira askotan, interes kultural edo artistikorik gabekoak, baina hori ez da guztiz egia. Izan ere, Manuel Achillek askotan eraman zuen bere semea Antzerki Lirikoaren emanaldietara, horrela, Claude Debussy-k modako operak ikusten zituen.



Verdiren *trobadora* kantak transtornatu egin zuen, bere hitzetan.

Nahiak eta lorpenak

Berak txiki-txikitatik Wagner musikaria mirestu egin izan zuen, berari (Wagnerri) esker musikaria izan nahi izan zuen. Lehen aipatu dugun bezala, bere aitari musika ere gustatzen zitzaionez suposatu daiteke utzi egin ziotela bere ametsak segitzen. Horrela, bere izebarekin hasi zen lehenengo piano klaseak ematen. Geroago, Manté de fleurville andrearekin joan zen. Mantek (Chopinen ikaslea berau) konbentzitu zituen bere gurasoak Debussy laguntzera. Andra honek Debussy urte

batez prestatu zuen Pariseko kontserbatorioko azterketa egiteko. Debussyk azterketa hau zailtasunik gabe gainditu zuen eta horrela kontserbatorio hartako ikaslerik garrantzitsuenetakoa bihurtu zen.

Lana eta ondorioak

Debussyk bidaia asko egin zituen Nadejda von Meck-en musikari pribatu gisa: Florentzia, Venezia, Viena eta Moskura ere joan egin izan zen. Bidaia horietako batean Wagner bere idoloa ezagutu zuen, nahiz eta beste konpositore famatu batzuekin topo egin: Tchaikovski, Aleksandr Borodín, Mili Balakirev, Modest Musorgski... folklore ijitoa eta errusiarra ere deskubritu zituen. Inpresionismo musikala martxan jarri zuen eta estilo honen ordezkari handiena izan zen. Bere berrikuntzek XX. mendeko bide musikal berriak ireki zituen. Debussyk sailkapenak gorroto zituen: iraultzailea zen berez. Berak zionez, beraren konposizioak berezkoak ziren. Entzuleak egin behar zuen bakarra akordeen segidek eta soinuek sorrarazten zituzten inpresioei jarraitzea zen.

Emaitzak

Debussyk beste musikako ate bat ireki zigun: inpresionismoarena hain zuzen ere. Berak musika-ikuskera berria zuen eta ikuskera hori beste askori itsatsi zien. Gainera oso umila zen bere buruaz hitz egitean, horrela definitzen baitzen: “Debussy, *compositeur français*”. Hainbat obra famatu idatzi zituen gainera, hala nola: *L'enfant prodige* (kantata-1884), *La Demoiselle élue* (kantata-1888), *Prélude à l'après-midi d'un faune* (1894), *Pélleas et Mélisande* opera (libreto-1902), *La Mer* (poema sinfonikoa-1905), *Douze préludes* (1910-1913), *En blanc et noir* (1915)...



GARIKOITZ SUAREZ CAPEROS